

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2008

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EAeren Administrazio Orokorraren 2008ko ekitaldiaren kontuen fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2008ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EAeren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Epaitegiak beharrezko irizten dio Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko 1/1994 LD aldatzeari, EAeren Aurrekontu Orokorretan Sektore Publikoa osatzen duten Fundazioak barne hartzearen. Honez gain, komenigarria litzateke urteko kontuek EAeren Euskal Sektore Publikoaren kontsolidatutako likidazioa barne hartzea.

Ekitaldirako oniritzitako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek 1/1994 Legegintzazko Dekretuaren 57. artikulua urratzen du.

Obren kontratazio administratiboari dagokionez, HKEEk aztertu dituen espedienteetan ondoko legezko ez betetze hauek azaleratu dira:

Lau obra kontratutan aldaketak egin dira eta horien ondorioz esleipen prezioaren gainean % 57, % 50, % 76 eta % 44ko igoera metatuak izan dituzte; horrek nabarmen aldatzen du kontratuaren xedea eta lehia-printzipioak urratzen ditu.

Halaber, Gobernuak arautegian finkatutako salbuespenezko prozedurari jarraiki, 16,6 milioi euroko eragiketak baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia

Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Zenbateko honetatik ia osoa obra, hornidura eta laguntza teknikoek kontratazioei dagokie eta ez-betetze nagusienak publikitate eta lehia printzipioak ez gordetzea, behin epea iraungia dela zerbitzu ematen jarraitzea eta kontratuaren zatikapena dira.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 18,8 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arategiak agintzen duen apartekotasun eta/edo deialdi publikoa deitzeko ezintasunaren betekizunak urratuz.

Epaitegiak adierazi du Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dutela.

Barne Kontrolerako Sistemiei eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak, kontabilizazioa, e.a. HKEEk hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten direnak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk azpimarratu du Diruzaintza Geldikinak % 28 egin duela behera 2007ko ekitaldiarekiko, nahiz oraindik ere ekitaldiko sarrera arrunten % 20 egiten duen; baina adierazi du diru-bilketaren beheraldiak gastua diru-sarrereri egokitzea aholkatzen duela, gastu arruntari eusteko politika indartuz.

Amaitzeko, Epaitegiak jakinarazi du PRE eta 3R laguntza-programetan emandako abalen kontzeptuan kobratzeko dagoen zorra berreskuratzeko aukerak oso urriak direla, nahiz eta zor horien saldoa % 100ean zuzkitu den eta Diruzaintza Geldikinetik murriztu.